

## **HELDU DEN MAIATZAREN 26KO UDAL HAUTESKUNDEETARAKO AGINDUAK**

Apirilaren 1eko 209/2019 Errege Dekretuak, zeina gaur argitaratu baita, apirilaren 2an (79. zenbakia), udal hauteskundearen deialdia egin du heldu den maiatzaren 26rako.

Une honetatik aitzin, hauteskunde-prozesuak berezkoak dituen jardun askoren epe kontaketa hasi da, besteak beste, hautagai-zerrendak aurkezteko epearena, hauteskunde-errola jendaurrean jartzekoa eta hauteskunde-mahaiak osatzekoa, etab.

Lehendabizi, azpimarratu behar da 3 zinegotzi hautatzea aurreikusten dela 100 biztanle arte dituzten udalerrietan, zuenean bezala, salbu eta, 2015eko udal hauteskundeak egin ondoko eratze bilkuraren ondoren, erabaki bazen kontzeju irekiaren araubideari heltzen jarraitzea (Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legearen 29. artikuluan aurreikusitakoaren babesean, 2/2011 Legeak aldatu eta gero).

Araubide honetan, hiru zinegotzi hautatu behar dira.

Bestalde, gogoan izan behar dugu **maiatzaren 25ean** bukatuko dela egungo udalkideen agintaldia. Horrenbestez, egun horretatik aitzin eta hautetsi berriek beren kargua hartu eta tokiko udalbatzak eratu arte, udalek jardunean jarraituko dute administrazio arrunteko aferetarako soilik, eta sekula ez dute gehiago kualifikatua behar duen erabakirik hartuko.

Garrantzitsua da kontuan hartzea ezen, Hauteskunde Batzorde Zentralaren martxoaren 4ko 3/2019 Aginduari jarraikiz, zeina martxoaren 4ko Errege Dekretuaren bidez onetsi baitzen, udal hauteskundeak egin arte debeku dela ekitaldirik antolatu edo finantzatzea, lortutakoaren aipamenik egiten duenik edo hauteskunde kanpainan erabiltzen diren adierazpenak eta irudiak edo antzekoak erabiltzen dituenik, edo obrak edo zerbitzu publikoak edo horien proiektuak inauguratzeko ekitaldirik egitea, edozein dela ere ematen zaion izena, ezertan galarazi gabe obra edo zerbitzu horiek funtzionamenduan has daitezkeela delako epe horretan.

Segituan, informazio gehiago zehaztuko dugu hautagai-zerrendak aurkezteari eta hauteskunde-prozesuari dagokionez udalak dituen betebeharren gainean.

### **1.- HAUTAGAI ZERRENDAK AURKEZTEA**

Alderdiez, koalizioez eta alderdien federazioez gain, beren hautagai-zerrenda aurkez dezakete hautesle-elkarteek ere. Azken horiek udalerriko hautesle-errolan izena emana duten hautesleen sinadura-kopuru bat behar dute, eta sinadura horiek notarioak edo udaleko idazkariak egiaztatuko ditu.

Zure udalerrian, elkartearen hautagaitza abalatzeko, 7 sinadura behar dira gutxienez, zeren, kasu guztietan, hautatu beharreko zinegotzien kopurua halako bi baino gehiago behar baitira.

Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 44. artikuluan xedatuarekin bat, alderdiek, federazioek, koalizioek edo hautesle-elkarteek ezin dute hautagaitzarik aurkeztu baldin eta judizialki legearen kontratizat jo eta desegin edo bertan behera utzitako alderdi

politiko baten jardunari jarraitzen badiote edo hura ordezkatzzen badute. Ondorio horietarako, kontuan hartuko da funtsezko antzik dagoen hautagaitzak zuzendu, ordezkatu edo administratzen dituzten pertsonen egituren, antolamenduaren eta funtzionamenduaren artean, edo finantzabideen edo baliabideen jatorriaren artean, edo beste edozein gauza aipagarririk badagoen, jarraipen hori edo ordezkatzeko hori badagoela pentsatzeko bide ematen duenik, hala nola indarkeria edo terrorismoa babesteko jarrera.

Kontuan hartu behar da, halaber, 3.000 biztanletik gorako udalerrietan nahitaezkoa dela gizonek eta emakumeek parekotasunik izatea hautagaitzetan, halako eran non sexu bakoitza gutxienez %40 izanen baita zerrendan, bat eginik Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 44. artikuluan egin aldaketarekin. Aginduak zehazten duenez, %40ko gutxieneko proportzioari eutsi behar zaio bost postuko tarte bakoitzean. Orobat, zerrendaren azken tarteak bost posturik ez duenean, emakumeen eta gizonen arteko parekotasun hori ahalik eta gehien hurbilduko da orekara, nahiz eta zerrenda osorako eskatzen den proportzioari eutsiko zaion. Gainerako udalerriei dagokienez, zerrenda paritarioak kontuan hartzen ahal dira hautagai-zerrendak eratzean.

**Hautagai-zerrendak apirilaren 17tik 22ra bitarte** aurkeztu behar dira, biak barne, zein bere Eskualdeko Hauteskunde Batzordean. Kasu guztietan, aurkezpen-idazkiak honako hauek jaso behar ditu:

- a) **Argi eta garbi adierazi behar dira alderdiaren, federazioaren, koalizioaren nahiz talde sustatzailearen izena, siglak eta ikurra.**
- b) **Gehienez hiru hautagaien izen-abizenak.**
- c) **Hautagaiek hautagai-zerrenda onartzen dutela dioen aitortpena.**
- d) **Hautagaiek hautagarriak direla egiaztatzen duen dokumentua.**

Horri dagokionez, esan behar dugu ezen, azken udal-hauteskundeetan bezala, hautagarriak izan daitezkeela, Espainiako herritarrekin batera, Espainiako nazionalitatea ez izanik ere, Europar Batasuneko herritar izaera duten eta Espainian bizi diren pertsonak, eta, halaber, itun bitartez beren herrialdeko udal-hauteskundeetan espainiar herritarrei hautagai izateko eskubidea ematen dieten herrialdeetako herritarrak. Horrenbestez, Hauteskunde Batzorde Zentralak berak emandako jarraibideen arabera, komenigarria da batzuek eta besteek aurkeztu beharreko dokumentuak adieraztea.

1.- *Espainiako herritarrei dagokienez:*

- Hautagai bakoitzaren **nortasun-agiriaren fotokopia** soila.
- **Hautagai bakoitzak** paper arruntean sinatutako **idazkia**, non zinpean aitortuko baitu **ez duela inolako ezgaitasunik hautagai izateko**, eta ez dagoela hautatua ez izateko arrazoirik. Halaber, berariaz onartu beharko du bere hautagaitza.

Aipatu idazkia idazki bakar bat izan daiteke, hautagai guztiek sinatua, edo hautagaiek sinatutako idazki bana. Bietan ere, onartuko da idazki bakar batean

nahiz bakoitzak bere idazkian egitea aipatutako zinpeko adierazpenak eta hautagaitzaren onarpena.

2.- *Europar Batasuneko herritarrei dagokienez eta, Espainian bizi izanda, beren herrialdeko udal-hauteskundeetan espainiar herritarrei hautagai izateko eskubidea ematen dieten herrialdeetakoak diren herritarrei dagokienez.*

- Hautagaiaren nortasuna egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia arrunta.
- Hautagaiak sinatutako adierazpen formala, non jasoko baitira: hautagaiaren nazionalitatea, Espainian duen helbidea, hautagaiak ez duela gabetua bere jatorriko Estatuan hautagai izateko eskubidea, eta jatorrizko herrialdean izan duen azken helbidea.
- Espainian hauteskundeetan botoa emateko eskubidea gauzatu nahi duela adierazitakoarekin bat, hautesle-errodan izena emana duela egiaztatzen duen ziurtagiria.

**e) Hautesle-elkarteen kasuan, haiek sustatzen dituztenen pertsonen egiaztatzea. Lehenago adierazi da 7 sinadura behar direla halakoetan (zure udalerrian, esaterako).**

**f) Hautesle-elkarteen kasuan, hautagai-zerrendaren ordezkarien izendapena.**

Ordezkariaren eginkizunak izanen dira:

- Hauteskunde-mahaietarako artekariak izendatzea eta akreditatzea. Izendapena hauteskundeak baino hiru egun lehenago arte egin daiteke. Artekaria izateko, hauteslea izan eta hautesle-errodan izena emanda egon behar da. Nolanahi ere, beste hauteskundeetan ez bezala, ez da nahitaezkoa izanen izena emanda egotea beren eginkizunak beteko dituzten hauteskunde-barrutiko erroldan.

Aurrekoarekin bat, izena emanda ez badaude bere eginkizunak beteko dituzten hauteskunde-barrutian, eskualdeko hauteskunde-batzordeak eskatu beharko dio Hauteskunde Erroldaren Bulegoari hautesle-errodan izena emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria premiazotasunez igortzea, salbu eta artekari izendatua izan denak aldeztatik aipatu ziurtagiria erakusten badu.

Hauteskunde Batzorde Zentralaren urtarrilaren 23ko 1/2019 Aginduekin bat, zeina artekarien botoari buruzkoa baita hauteskunde-prozesu batzuk batera egiten diren kasuetan, artekariak zer mahaitan dauden akreditaturik, horretan eman beharko dute botoa, betiere deitutako prozesu guztietan bozkatu behar duen hauteskunde-barrutiaren barnean badago mahi hori, eta hori betetzen ez bada prozesuetako batean, posta bidez bozkatu beharko du guzti-guztietan.

- Ahaldua izendatzea, hautagaitzaren ordezkari izan dezan hauteskundeetako ekitaldietan eta operazioetan (adinez nagusi den edozein herritar izan daiteke ahaldua, baldin eta bere eskubide zibil eta politikoak indarrean baditu).

Hautesle-elkarreek, hautagai-zerrenda aurkeztu eta hurrengo bi eguneko epean, taldearen administratzailea izenda dezakete Probintziako Hauteskunde Batzordearen aitzinean. Kargu hori adinez nagusi den edozein herritarrek bete dezake, eskubide zibil eta politikoak indarrean baditu.

1/2003 Lege Organikoaren bosgarren artikuluan xedatutakoari jarraikiz, ezin izanen dira hauteskunde-artekari izendatu kondenatuak izan direnak epai bidez, hura irmoa ez izanik ere, matxinada edo terrorismo delituengatik nahiz Estatuko instituzioen aurkako delituengatik, baldin eta epaiak, zigor-leggedian ezarritako baldintzetan, hautagai izateko eskubidea gauzatzeko gaitasungabetzea ezarri badie.

Hautagaitzaren ordezkaria ere izan daiteke administraria. Haren eginkizuna da hautagaitzaren kontabilitatea eramatea hauteskunde kanpainan, Kontabilitatearen Plan Orokorrarekin bat, kanpainan egin gastuengatik ematen diren dirulaguntzak lortzeko geroago.

Administrariak banku kontu bat ireki behar dute, hauteskunde kanpainako funts guztiak hor sartzeko, eta, haren bitartez, administrariak ordainketa guztiak eginen ditu. Probintziako Hauteskunde Batzordeari jakinarazi beharko zaio kontua ireki dela, ireki eta hurrengo hogeita lau orduko epean. Hauteskundeak egin eta ehun egunetik ehun eta hogeita bostera bitarteko epean (irailaren 3tik 28ra), alderdiek, koalizioek edo elkarteek, dirulaguntzak jasotzeko betebeharrak konplituak badituzte edo aurrerapenak eskatuak badituzte dirulaguntzen kargura, kontabilitate zehaztua eta dokumentatua aurkeztuko dute modu telematikoan Kontuen Auzitegian, hura fiskalizatzeko eta gero kasuan kasuko dirulaguntza ordaintzeko.

**Apirilaren 24an** argitaratuko dira NAO-n aurkeztutako hautagaitza guztiak.

**Apirilaren 30ean** argitaratuko dira, NAO-n ere, onartutako hautagaitzak.

- **Hauteskunde gastuaren muga**

Garrantzitsua da kontuan izatea zein den hauteskunde gastuaren muga eta zer zehapen ezar daitekeen hura gainditzeagatik.

Hauteskunde-barruti bakar batean aurkeztzen diren hautesle-elkarteak edo alderdi txikiak daude muga horiek ukituta nagusiki, zeren, hauteskunde gastuaren gehieneko muga kalkulatzeko, 0,11rekin biderkatu behar baita biztanle kopurua. Muga orokor horren barnean, sartuta daude kanpoko publizitatearen gastuak eta prentsa eta irratia-aren publizitatearenak, zeinek ezin izanen baitute gastuen gehieneko mugaren %20 gainditu.

Muga horiek %10 edo gehiago gainditzea oso arau-hauste astuntzat jotzen da, astuntzat %3tik %10era bitarte gainditzen bada, eta arintzat, %1etik %3ra bitarte gainditzen bada. Arau-hauste horiek 50.000, 25.000 edo 5.000 euroko isunak ekarriko dituzte gutxienez, hurrenez hurren.

Halaber, kontuan hartu behar da hauteskundeetan lortutako emaitzen arabera jasotzen diren dirulaguntzak (270,90 euro hautatutako zinegotzi bakoitzeko eta 0,54 euro lortutako boto bakoitzeko) ezin dira handiagoak izan aplikatu beharreko gastu muga baino.

Ondoko estekan argibide gehiago daude ikusgai gai horren inguruan.

<http://www.juntaelectoralcentral.es/cs/jec/documentos/FolletoTCuGastosElectorales.pdf>

- Beste gai garrantzitsu batek ukitzen ditu hauteskundeetan aurkezten diren hautesle-elkarteak, Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzeke otsailaren 4ko 4/2019 Foru Lege onetsi berriaren ondorioz: Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari jakinaraztea elkartzeko asmoa dutela, Eskualdeko Batzordeko kideen izendapenaren ondorioetarako, aurreikusten bada eskualdeak legegintzaldi honetan eratuko direla. Udal hauteskundeak egin baino lehen jakinarazi behar zaio hori Hauteskunde Batzordeari, idatziz.

Aukera hori foru lege horren 376. artikuluan dago jasota.

## **2.- UDALAREN BETEBEHARRAK HAUTESKUNDE PROZEDURAN**

- Udalek zerbitzu bat eduki behar dute martxan kasuan kasuko udalerrian indarra duten hauteskunde zerrendak kontsultatzeko, 8 eguneko epean, **apirilaren 8tik 15era**. Baliabide informatikoen bidez egiten ahalko da kontsulta, interesduna identifikatu ondoan, edo hauteskunde-zerrendan jendaurrean paratuz, beharrezko baliabide informatikoak eduki ezean. Epe horretan, edozeinek erreklamazioa egiten ahal dio Hauteskunde Erroldaren Bulegoko probintziako ordezkariari bere erroldako datuen inguruan. Udalen bitartez egin daitezke erreklamazio horiek, zeinek kasuan kasuko ordezkarietara igorriko baitituzte segituan.
- Hauteskunde-mahaiak osatuko dituzte **apirilaren 27tik maiatzaren 1era** bitartean, zozketa publiko bitartez eta eskualdeko hauteskunde-batzordeak gainbegiratuta.
- Udalek behar bezala seinaleztatu behar dituzte hauteskunde atal eta mahai bakoitzari dagozkion lokalak.
- Hauteskunde-kanpainako ekitaldiak antolatzeke lokal ofizialak eta doako erabilerako leku publikoak gordeko dituzte (eskualdeko hauteskunde-batzordeari jakinarazi behar zaio **apirilaren 3tik 12ra** bitartean), baita kartelak paratzeko doako leku bereziak ere (eskualdeko hauteskunde-batzordeari jakinarazi behar zaio **apirilaren 3tik 9ra** bitartean).

## **3.- HAUTESKUNDE KANPAINA**

Hauteskunde-kanpainak hamabost egunez iraunen du, ostirala den **maiatzaren 10eko** gauerdiko zeroetatik ostirala den hil bereko **24ko** gauerdiko hogeita lauak arte. Epe horretatik kanpo, debeku da ezein hauteskunde-propagandaren ekintzarik egitea.

## **4.- HAUTESKUNDE MAHAIK ERATZEA, BOZKATZEA ETA ZENBAKETA**

Hauteskunde-mahaia **maiatzaren 26ko** goizeko zortzietatik zortzi eta erdietara eratuko da, honako hauekin: mahaiburua, mahaikideak eta hautagaitzetako ordezkariak behar bezala akreditatutako artekariak.

Mahaia eratzeko akta zortzi eta erdietan bete beharko da.

Bozketan, une oro, bi mahaikide egonen dira.

Bozketa goizeko bederatzietan hasiko da, eta arratsaldeko zortziak arte iraunen du, etenik gabe.

Botoa sekretua da, eta hautesleak aurkeztu diren hautagai-zerrenden artean aukeratu beharko du.

Bozketan, une oro, bi mahaikide egonen dira.

Bozketa goizeko bederatzietan hasiko da, eta arratsaldeko zortziak arte iraunen du, etenik gabe.

Bozketa sekretua da, eta hautesleak **bi boto eman ditzake gehienez** aurkeztu eta onartu diren hautagai guztien artean.

Hauteskunde-mahaietan egiten den zenbaketa publikoa da, eta zenbaketa horren akta bete behar da, hauteskunde-legediak ezarritako terminoetan.

Eskualdeko hauteskunde-batzordeak eskumena izanen du zenbaketa orokorra eta hautagai-hautetsien izendapena egiteko, hau da, botorik gehien lortzen dituztenak izendatzeko hiri zinegotzi izan arte.

Udal hauteskundeak beheko taulan jasotako legeak betez egingen dira.

Argibide gehiago nahi izanez gero, Federazioaren web orrian jaso dezakezue ([www.fnmc.es](http://www.fnmc.es)).  
“Udal hauteskundeak” izeneko atalean hauteskunde-egutegia aurki daiteke, bai eta hauteskunderi buruzko hainbat informazioa ere, unean-unean eguneratuko dena.